

Hitzaurrea



uela sei hilabete egin genuen bezala, berriro gatozkizu, irakurle, udaberriko hitzordura, oraingo edukiak ere zure interesekoak izango direlakoan. Laugarren zenbaki hau HGLko itzulpengintzari dedikatu nahi izan diogu, eta, hori dela eta, haur eta gazte literaturan eskarmentu handia daukaten hiru itzultzaile elkarrizketatu ditugu, mahainguru moduko batean, «Hitz eta Pitz» sailean: LURDES AUZMENDI, IÑAKI MENDIGUREN eta JOXAN ORMAZABAL. Solasaldi horren osagarri modura, MANU LOPEZ GASENIK gai berari buruz egindako artikulu bat aurki dezakezu «Hizpide».

Baina beste gai asko eskaini nahi izan dizkizugu. Esaterako, XABIER MENDIGUREN ELIZEGI eta KARLOS LINAZASORO hurbildu zaizkigu geure «Hitzordu» delakora, errealitatearen eta fantasiaren artean dauden tirabiren berri emateko: bakoitzari ñabardura ugari onartzen dituen soka luzearen mutur batean kokatzea eskatu diogu. Haur eta Gazte Literaturaren inguruko pertsona askok sinatutako manifestua ere ekarri nahi izan dugu *Behinolaren* orrialdeetara: «Haur eta Gazte literaturaren ikusezintasunaren kontrako manifestua», hain zuzen ere; eta honen ondoren J. K. IGERABIDEK iazko Frankfurtoko azokan irakurritako testua. «Hitzontzi» saileko gonbidatua, berriz, YOLANDA ARRIETA dugu, egunkari moduan antolatutako sorlan atsegin batekin.



Belén Lucas

Ohi bezala, «Hitz beste» kritika eta erreseina ugariz hornituta dator, gurera erreseinagile berriak etortzeak ematen digun poztasunarekin: horrek aldarrikatu izan ditugun independentzia eta aniztasuna bermatuko ahal ditu!

Aldizkariaren «Hitzatze» gisa, ASTRID LINDGRENEN artikulua eder bat aukeratu dugu: «Elkarrizketa laburra haurrentzako idazlegai batekin» izenekoa.

Eta, *last but not least*, laugarren zenbaki honetarako marrak eta margoak, kolorea eta sentsibiltatea, BELEN LUCASEK utzi dizkigu.

Eduki hauek guztiak interesgarri eta baliagarriak izango zaizkizulakoan, eta beti bezala zure iradokizunen zain, udazkenean berriro elkartuko garelako esperantza berri nahi dizugu *Behinola* egiten dugun guztiok.



Belén Lucas

HERRI IPUINEI BURUZKO BILTZARRA

Galtzagorrik antolatua, Urriaren 18tik 20ra Bilbon.

A. RODRÍGUEZ ALMODOVAR, G. LLUCH,

G. GOMEZ ZUBIA, X. KALTZAKORTA, ETA BESTE

Ipuin kontalariak. Ipuin biltzaileei buruzko erakusketa,...

Informazio gehiago

Galtzagorri elkartean:

Artzain Onaren Plaza, 15-1. ezk. 20015 Donostia

galtza.hgl@euskalnet.net